



ALKIZAKO UDALA

UDALBATZARRAK 2024ko MARTXOAREN 26AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2024ko martxoaren 26an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA :	Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK :	Unai Sorarrain Urruzola Urruzola
	Nagore Arizeta Garmendia
	Jose M ^a Aranzabe
	Ana Agesta Echecolonea
	Gillermo Otegi Zubillaga
	Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA:

Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - ✓ **2024ko otsailaren 27an egindako ohiko bilkuraren akta.**
 - ✓ **2024ko martxoaren 21an egindako ez ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2023ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea, hala bada.**
- 5. 1/2024 kreditu aldaketaren hasierako onspena (incorporación de créditos).**
- 6. Tolosaldea Sahararekin Elkarteak eginiko diru-laguntzaren azterketa, hala bada.**
- 7. 2024 urterako udal zergen hobari eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 8. Aiztondo Neskide kirol taldeari 2023 urtean emandako diru-laguntzaren kitapenaren onspena.**
- 9. Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteari "TOLOMENDI"-ri, 2024 urteari dagokion ekarpena burutzea.**
- 10. Alkizako Erretore Etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanen Kitapena, 5. Obra ziurtagiriaren onspena.**
- 11. Gipuzkoako lurralde historikoko 7000 biztanletik beherako**



ALKIZAKO UDALA

udalerriei dirulaguntzak emateko, udal plangintza orokorreko hirigintza tresnak berrikusteko edo 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legea (Lurzoruari eta hirigintzari buruzko legera) egokitzeko gastuak finantzatzeko diru-laguntza eskaera egitea.

12. Beste batzuk.

13. Mozioak, erreguak eta galderak.

.../...

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENAK

- 2024ko otsailaren 27ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.
- 2024ko martxoaren 21 ez ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 13/2024tik 16/2024 arteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

GOIENER	7,35
GOIENER	21,58
GOIENER	11,64
GOIENER	238,35
GOIENER	825,96
GOIENER	302,39
GOIENER	487,41
GOIENER	35,09



ALKIZAKO UDALA

GOIENER	142,07
GOIENER	128,50
GOIENER	28,15
GOIENER	405,83
GOIENER	22,09
GOIENER	10,76
GOIENER	12,38
GOIENER	43,37
GOIENER	25,72
GOIENER	5,65
GOIENER	271,04
EUDEL	300,51
KIROLZER	50,80
KALEXKA ELKARTEA	1.000,00
GUREAK MARKETING	5,57
MAQUELSA	4,24
ANDER MOREA	1.452,00
ARGITU-ASESORES	283,42
OSCAR GALINDO	133,10
NORTEGAS	72,70
CALPARSORO INDUSTRIAL	659,58
I-SAI ACCESOS Y PRESENCIA	479,70
MAQUELSA	51,49
EBA ERKIZIA	1.532,82
GISAT.S.COOP	122,00
GISAT.S.COOP.	66,55
CORREOS	6,00
NORTEGAS	395,44
NORTEGAS	507,41
ORANGE	225,07
GOIENER	9,87
GOIENER	21,18
GOIENER	19,79
OSTARBI ERAIKUNTZA	1.790,80
QUISER	427,58
OSATU	359,88
QUISER	195,28
TOLOMENDI	1.045,29



ALKIZAKO UDALA

GARAJE IBARRA	1.067,40
GOIENER	3,52
GOIENER	10,88
GOINER	526,69
GOIENER	215,50
GOINER	28,77
GOIENER	106,59
GOIENER	94,91
GOINER	93,74
GOINER	22,87
GOINER	232,54
GOINER	15,07
GOIENER	192,10
GOIENER	146,03
GOIENER	12,07
GOINER	9,33
BAXI	131,89

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **17.153,30** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ondoren batzarkideei 2023 ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorren likidazioaren berri ematen da, 2023/16 zenbakia duen eta 2024ko martxoaren 19an Alkate Ebazpenez onartua izan zena:

ALKATETZA EBAZPENA 16/2024

Udal honen 2023(e)ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT



ALKIZAKO UDALA

Lehena.- Udal honen 2023(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINITZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2023-12-31n:		262.516,03
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2023-12-31n:		23.770,94
Aurrekontuko zordunak :	15.826,89	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	7.944,05	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2023-12-31n:		224.683,28
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	142.086,63	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	82.596,65	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		61.603,69
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		61.603,69

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-196.092,64
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-4.512,29
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	232.471,65
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	31.866,72



ALKIZAKO UDALA

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	175.480,71
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	479.256,59
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	654.737,30

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen dira.

BOSTGARREN PUNTUA

1/2024 KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA (KREDITU TXERTAKETA)

Ondoren batzarkideei 2024 ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorren 1/2024 zenbakidun kreditu aldatetaren berri ematen da (kreditu txertaketa), 2023/18 zenbakia duen eta 2024ko martxoaren 27an Alkate Ebazpenez onartua izan zena:

2024/18 ALKATEAREN EBAZPENA

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketaren modalitatekoa, 2024-KALD-000001-00 zenbakiduna,

Ikusita Idazkari kontu-hartzailearen txostena eta ziurtagiriak,

Ikusita Alkizako Batzorde Informatiboko buruak egindako aldeko txostena eta onarpen proposamena,

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 32.6. artikulua bitartez, kreditu txertaketa onartzeko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT



ALKIZAKO UDALA

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2024-KALD-000001-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
6	INBERTSIO ERREALAK	26.000,00
TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA		26.000,00

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	26.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		26.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailatza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen dira.

SEIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik, aurten ere, Tolosaldea Sahararekin elkarteak kudeatuko duela Oporrak Bakean behin-behineko udako harrera programa. Horretarako urtarriletik aurrera teknikari bat kontratatuko du, programarako beharrezkoa den lanketa guztia koordinatuz eta itzultzaile bat ere.

Programa honen babesean Saharako hainbat neska-mutil etorriko dira Tolosaldeako familietara uda-aldia igarotzea, bere osasuna eta



ALKIZAKO UDALA

garapena hobetzeko helburu nagusiarekin. Tolosaldean uda igaroko duen haur bakoitzeko kostua 1.350,00 eurotako izango da.

Ikusirik, Alkizako Udalak ere parte hartu nahi duela programa horretan.

Ikusirik, programa hori gauzatzeko hitzarmen bat prestatu dela Tolosaldea Sahararekin Elkarteak eta Alkizako Udalaren artean sinatzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udalak, Oporrak Bakean programan parte hartzeko onespena ematea.

BIGARRENA: Alkizako Udalak, Oporrak Bakean programarako, 480.230.00.01 kontu sailean, 1.900,00 euro aurrakusten dituela, programak sortarazten dituen gastuekin laguntzeko. Aipaturiko gastua egiteko onespena ematea eta ordainketa burutu dadin agintzea.

HIRUGARRENA: Alkizako Udalak eta Tolosaldea Sahararekin Elkarteak Oporrak bakean programa aurrera eramateko prestatutako hitzarmena onestea. Inaki Irazabalbeitia Fernandez, Alkizako Alkatea ahalmentzen delarik aipaturiko hitzarmena sinatzeko.

ZAZPIGARREN PUNTUA

2024 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2024 urterako udal zergen hobari deialdia onestu zela, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan, familia ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinaren kasuetan eskatu daiteke, eta Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kasuan, familia ugaria izateagatik eta motorraren arabera eskatu daitezke.

Ikusirik Alkizako Udalak, 2024ko otsailaren 1ean deialdia zabaldu zuela, hobari edo bonifikazio eskaerak egiteko, azken eguna 2024ko otsailaren 29-a izan zelarik.



ALKIZAKO UDALA

Ikusirik, goian aipaturiko epean 27 hobari eskaera egin direla, hauetatik, 16 eskaera familia ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta izateagatik, ondasun higiezinaren gaineko zergan, eta 11 eskaera, familia ugaria eta ibilgailuaren motorraren arabera izateagatik, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan.

Ikusirik, hemezortzi eskaera hauek baldintza guztiak betetzen dituztela aipaturiko hobariak jasotzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ondoren zehazten diren zergen hobari eskaera hauek onestea:

TITULARRA	EGITATE ZERGAGARRIA	HOBARIA
A.G.A.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
M.D.A.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
J.E.A.U.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
I.Z.S.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
A.M.A	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
A.E.G.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
J.G.Z.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
I.U.Z.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
P.M.F.D.L.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
X.G.E.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
I.U.U.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
U.O. L	<i>IBI-FAMILI UGARIA</i>	%30
G.G.A.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
U.U.I.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
L.A.Z.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
J.E.G.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
J.G.Z.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
I.U.U.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
U.O.L.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
J.E.G.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
U.U.I.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
A.S.S.S.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
X.G.E.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
G.G.A.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
A.E.G.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
P.M.F.D.L.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50



ALKIZAKO UDALA

A.B.D.	IBILGAILUAK-MOTORRAREN ARABERA	%50
--------	--------------------------------	-----

*Eragiketa egitean aplikatuko zaio.

BIGARRENA: Erabaki hauen berri interesatuei ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

AIZTONDO NESKIDE KIROL TALDEARI 2023 URTEAN EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA

Ikusirik "Aiztondo Neskide kirol klubak", aurkeztu duela 2023 urtean jasotako diru-laguntzen kitapena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: "Aiztondo Neskide kirol klubak", 2023 urteko Alkizako udaletik jasotako diru-laguntza zuritzeko, aurkezturiko kitapena, Alkizako udalak onesten du.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO LANDA GARAPENERAKO ELKARTEARI, TOLOMENDIRI, 2024 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA

Ikusirik Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak- "Tolomendi-k" aurkeztutako idatzia non 2024ko otsailaren 26an ospatutako Batzar Orokorrean 2024 ekitaldirako Elkartearen aurrekontua onartu zela jakinarazten den.

Ikusirik 2024 ekitaldirako onartutako aurrekontuaren arabera Alkizako Udalarari 2.848,37 euro ordaintzea dagokiola.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosako Landa Garapen Elkarte-Tolomendiri 2.848,37 eurotako gastua onartzea eta ekarpena burutzea. Udal aurrekontuetako 422.943.01.01 partidaren kargura.

BIGARRENA.- 2024 urteko udal aurrekontu orokorrean kreditu nahikoa aurreikustea.



ALKIZAKO UDALA

HAMARGARREN PUNTUA

ALKIZAKO ERRETORE ETXEAN IGOGAILUAREN IPINTZEA ETA IRISGARRITASUN BALDINTZEN HOBEKUNTZA LANEN KITAPENA, 5. OBRA ZIURTAGIRIAREN ONESPENA

Ikusita Alkizako udalak, 2023ko irailaren 12an egindako udalbatzarrean, Alkizako Erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanak esleitu zizkiola OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUAK, S.L.ri.

Ikusirik, aipaturiko lanak exekutatzen ari direla.

Ikusirik egindako lanen ondorioz, OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUAK, S.L.-k 5. Obra ziurtagiria aurkeztu duela, honekin, obra amaiaren kitapena aurkeztuaz.

5.Obra ziurtagiria: 14.563,64 euro.

Ikusirik aipaturiko obra ziurtagiriei, obra zuzendariak, hau da, Eba Erkizia udal aholkulari teknikoak bere on iritzia eman diela.

Ikusirik aipaturiko obra ziurtagiriak ordaintzeko 2023ko udal aurrekontuetan badagoela adina diru kopuru.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUAK, S.L.-k aurkezturiko, Alkizako Erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanen ondorioz, 5. Obra ziurtagiria, obraren kitapena onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea. Ondorengoak direlarik:

5.Obra ziurtagiria: 14.563,64 euro.

BIGARRENA: 14.563,64 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa 2023ko udal aurrekontuetako 1 0000 622.920.00.01 kontu sailaren kontura egin dadin agintzea.



ALKIZAKO UDALA

HAMAIKAGARREN PUNTUA

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO 7.000 BIZTANLETIK BEHERAKO UDALERRIEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO, UDAL PLANGINTZA OROKORREKO HIRIGINTZA TRESNAK BERRIKUSTEKO EDO 2006KO EKAINAREN 30EKO 2/2006 LEGERA (LURZORUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKO LEGERA) EGOKITZEKO GASTUAK FINANTZATZEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA EGITEA

Ikusita, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako udalerriei dirulaguntzak emateko, hain zuzen ere, udal plangintza orokorreko hirigintza tresnak berrikusteko edo 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legea (lurzoruari eta hirigintzari buruzko legera) egokitzeko gastuak finantzatzeko 2024ko deialdia argitaratu dela.

Ikusita, Alkizako Udalak asmoa duela legealdi honetan Plan Orokorrarekin jarraitzea, indarrean dituen arau subsidiarioak oso zaharkituta gelditu direlako, azken hauek, 2/2006 Legea egokitu nahi dituelarik.

Guzti hau kontutan izanik, Alkizako Udalak asmoa du Gipuzkoako Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako udalerriei dirulaguntzak emateko, hain zuzen ere, udal plangintza orokorreko hirigintza tresnak berrikusteko edo 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legea (lurzoruari eta hirigintzari buruzko legera) egokitzeko gastuak finantzatzeko 2024ko deialdiaren babesean diru-laguntza eskaera egitea.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udalak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako udalerriei diru-laguntzak emateko, hain zuzen ere, udal plangintza orokorreko hirigintza tresnak berrikusteko edo 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legea (lurzoruari eta hirigintzari buruzko legera) egokitzeko gastuak finantzatzeko 2024ko deialdiaren babesean diru-laguntza eskaera egitea.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria den Inaki Irazabalbeitia Fernandez jauna, ahalmentzea, Alkizako udalaren izenean aipaturiko diru-laguntza eskaera egiteko.



ALKIZAKO UDALA

HAMABIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

12.1. ERRETORE ETXEAN IPINI BERRIA DEN IGOGAILUAREN MANTENU ZEBITZUAREN ESLEIPENA

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du Alkizako Erretore etxean ipini berria izan den igogailuaren mantenimendu lanen kontratua esleitzea.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Ikusirik, igogailua ORONA Ulahi etxekoa dela, eta bi urtetako garantia duela.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberak kontratu txiki baten aurrean gaude. **ZERBITZU** kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.



ALKIZAKO UDALA

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

ZERBITZU kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Beraz, Toki jardunbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak eta Azaroaren 8ko 9/2017 legeak (Sektore Publikoko Kontratazio arautzen duena) ematen dizkidan eskuduntzaz baliatuaz, ondorengo ERABAKIA hartzen dut:

LEHENA: ORONA Ulahi enpresari, Alkizako Erretore etxean jarri berri izan den igogailuaren mantenu lanen kontratua esleitzea, urte baterako 1.380,00€ diru kopuruan (BEZa kanpo), ordainketa **1.0000.212.334.00.01** kontu sailaren kontura **“Erretore etxeko igogailua”**.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

12.2. AIZTONDO NESKIDE KIROL KLUBA-k EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA

Ikusirik Aiztondo Neskide Kirol Kluba-k eginiko eskaera, non dioen, bailarako emakumeen kirola bultzatzeko sortu berria den klub honek, futboleko 9 talde mantendu eta boleibolen infantil, kadete eta senior taldeak sortu nahi dituztela, horretarako ezinbestekoa da bailarako udalerrien diru-laguntza. Horregatik Aiztondo bailarako udaletxeei diru-laguntza egiten die.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA

LEHENGOA.- Neskide Kirol Kluba-ri 500,00 eurotako ekarpena burutzea 2024ko Udal aurrekontuetako 481.340.00.99 Kontu sailaren kargura.

BIGARRENA.- 500,00 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Aiztondo Neskide Kirol Kluba-ri jakitera ematea, egin duen gastuen memori bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA
MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.55 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

